

“Bizitza atzeraka”, Gudule.
Itzultzailea: Mikel Garmendia. Elkarlanean, 2000.

Heroiek ere negar egiten ote?

Gudule goitizenez sinatzen duen Anne Karali idazleak, seropositiboa den mutil baten ingurukoak dakarkizkigu 23 kapitulu-
lutan zehar harilkatzen duen istorio honetan.

Mutilak Thomas Dunoy dauka izena; neskak, berriz, Elsa. Udazkena da eta ikasturte berriari hasiera eman baizik ez diote egin. Thomas, begi urdindun mutil segaila, berria da eskolan eta Elsak “Itsas-Handia” ezizenez bataiatuko du. Bi gazteak maitemindu egingo dira eta bikote berriaren maitasun printzak eskolan nabarmentzen hasten direnean, irakasleak, sekretupean gordetzea zin egin badu ere, Elsaren gurasoei Thomas seropositiboa dela jakinarazi behar diela erabakitzen du. Eleberriaren muina den gertakizun honen aurrean, Gudulek maisuki deskribatuko ditu erreakzio ezberdinak: Elsa eta Elsaren gurasoena batetik, gizarteak tankera honetako albisteen aurrean hartzen duen jarrera eta gizartearen aurriritziek guregan duten eragina bestetik, eta Thomasen erreakzioa azkenik.

Gudulek, gazteekin konektatzeko elementu anitz erabiltzen ditu: jazkera eta orrazkera ezberdinen deskribapenak, modako marken aipamena, gazteen kale hizkera, guraso eta nagusiei buruz pentsatzen dutena esateko ausardia, esajerazioz betetako azalpenak emateko abilezia, eta gazteek ohi duten bezala, urteak eta gertakizunak ikasturteen arabera kontatzekoa, besteak beste.

Kontakizun lineal honetan aipagarria den beste elementu bat espazioaren tratamendua da. Gazteek, bai pertsonaiek eta bai irakurleek, ondo baino hobeto ezagutzen eta egunero bizi duten etxea, kalea eta eskola izango ditu kokaleku. Pertsonaiei dagokienean, gehienak goitizenez bataiatuko ditu.

Eleberrian tratatzen diren gaiak ez dira gazteriarri urrun gertatzen zaizkionak: leialtasuna, traizioa, eskrupuluak, aurriritziak,

marginalia, gizartearen eta gurasoen eragina, erabakiak hartzen hasteko tenorean pentsatu eta sentitu behar denari buruzko gogoeta, duintasuna, maitasuna, mendekua, errukia eta ulermena.

Guzti hau gutxi ez izanik, narratzaileak badarabil irakurlea irabazteko eta bere alde jartzeko beste baliabide bat ere: iritzia sustatzearena, alegia. Narratzaileak, pertsonaiek edo adin bere-tsuko irakurleek egingo lituzketen iruzkinak egiten ditu. Irakurleari aurrea hartzen dio, zer pentsatu behar duen esanez. Era honetan, nerabeari bere sentitzeko eta pentsatzeko modua azalertzeko sentitzen duen ezintasunari irtenbidea damaio Gudulek, gazteei, beren barne-kontzientzia erauzten ausartuko balitzaie bezala.

Azaleko baloreen aldarrikapena

Gaiaren aukeraketa eta gazteekin konektatzeko erabilitako maisu-lanaren aurrean, hala ere, badauzka eleberriak narrazio-ari egokitasuna kentzen dizkioten zenbait puntu: Estatu Batuetatik datorkizkigun filme (edo atalka saltzen diren eleberri "arrosa" amaiezin) gehientsuenetan bezalaxe, eleberriak pertsonaia Onak eta Gaiztoak erakusten dizkigu; onak onegiak direlarik, eta gaiztoak gaiztoegiak. Eleberriaren amaiera "ondo bukatzen diren horietarikoa" dela susma dezake irakurleak, irakurketa errazegia bilakatzen duelarik.

Eleberriak ikutzen dituen baloreak, bestalde, oso azalekoak dira: neska-mutilak, elkar ikusi ez beste maitemintzen dira; eta aipatu filmeetan bezala, fisikoan oinarritzen da elkarrenganako erakargarritasuna. Eleberria amaiera onera eramango duena ere heroi bat izango da. Thomas-ek heroia dela jakinarazten duenean eskatzen dio Elsak barkamena, eta ondorioz, istorioa ongi bukatzen. Gaisotasuna, berez, oso gutxi tratatzen da: ez zer den, ez zer suposatzen duen. Thomas mintzen duen arrazoa, Elsari bere gaisotasunaren berri kontatu ez izana eta marginatua sentitzea da, ez gaisotasunak suposa dezakeen ezintasuna edo etorkizunari begirako muga.

FAROLA OKER BATI

2000. urteko maiatzaren 8an hasi eta uztailaren 8a bitartean Ondarroan 10 asteburuz luzatutako Literatura Mintegiko partaideek bi baldintza barnebiltzen zituen desafioa jarri diote euren buruari: lehenengoa, ipuin bat asmatu beharra, delako ipuin horrek, titulu gisa, testuaren hasieran, ipuinaren amaieran edo gai bezala, **“Farola oker bati”** esaldia txertatu behar zuelarik. Bigarren baldintza: ipuinak laburra behar zuela izan.

Hortik aurrera, bakoitzaren lana.

Ale honetan, Estibalitz Artetxe, Lore Bengoetxea, Aiora Beristain eta Izaskun Jauregik idatzitakoak dakarkizkigu orrialde hauctara. Hurrengo alean, Josune Badiola, Guruzne Berridi, Jon Fernandez eta Iñake Goñirenak irakurtzeko aukera izanen dugu.

Ana Urkiza